

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Txistu, biolin eta klarinete kontzertua ostegun honetan Interpretre Gazteen IV zikloaren baitan

Kontzertua Fernando Remacha Auditorioan izango da 19:30etan eta sarrera doakoa da

Asteazkena, 2019.eko otsailak 20

Fernando Remacha Auditorioak ostegun honetan txistu, biolin eta klarinete kontzertua eskainiko du Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako 4. mailako ikasleen eskutik. Interpretre Gazteen IV zikloko hirugarren kontzertua 19:30etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da aretoa bete bitartean.

Ostegun honetako protagonistak Ainara Martínez txistularia, Ana Lasaosa biolinjolea eta Joan Ander Arcenillas klarinetejolea izango

dira. Gazte interprete hauek garai eta nazioarteko zein tokiko sortzaileen lanak eskainiko dituzte. Kontzertuan Johannes Brahmsen biolinerako kontzertuko lehen mugimendu entzutetsua eta Jean Françaixen klarinete eta pianorako bariazioak, eta Bartelonen Albert Guinovart klarinete eta pianorako sortutako 'Fantasía sobre Goyescas' obra; Urtzi Iraizoz sortzaile nafarrak pianorako sortutako 'Ubera' pieza; eta Martin Zalba nafarrak txistu eta pianorako moldatutako 'Guggenheim' obra.

Interprete Gazteen Zikloaren IV edizio honetan espezialitate klasikoetako 4. mailako ikasleek hartzen dute parte; bonbardinoa, kantua, klarinetea, txirula, gitarra, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronpa, tronpeta, txistua, biolina eta biola ikasten duten ikasleek. Emalandietan ikasleek Miguel Ángel Aguirre, Leyre Lisarri, Michel Reynoo eta César Vallejo pianojoleen lagutza izango dute.



Ana Lasaosa, Ainara Martínez eta Jon Ander Arcenillas.